



Beasaindik altxor ezkutua

La parroquia de Nuestra Señora de la Asunción, centro de referencia del patrimonio religioso de Gipuzkoa



Comienzan las obras de la nueva vía natural junto al río Oria

06



Ibilbide eta espazio inklusiboagoak egiteko galdetegia

08



★
Zuen
alkatea

Leire Artola Ugalde
BEASAINGO ALKATEA

Gure sustraiei leiho berri bat ireki diegu

Gaur harrotasunez begiratzen diogu gure Andre Maria Zeruratuaren parrokia berrituari. 2021ean hasi zen bidaia honek ezusteko pozgarria ekarri digu: 1555etik ezkutuan egon den altxor errenazentista berreskuratzea.

Alkate gisa, hunkigarria zait ikustea nola gure iragana modu bizian itzuli den argitara. Aurkikuntza honek gure herriaren nortasuna sendotu eta gure ondare historikoa munduaren aurrean aberasten du. Baina emaitza hau ez litzateke posible izango erakundeen arteko elkarlan eredugarria gabe. Eskerrak eman nahi dizkizuegu Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Elizari, gurekin batera proiektu estrategiko honen alde apustu

egiteagatik. Eta nola ez, Pedro Echeverria artearen historian aditua den irakasleari eta zaharbertz lanetan aritu diren profesional guztiei, beraien lan zehatzagatik.

Berreskuratutako ondare hau ez da arte hutsa; Beasaintzat aukera berri bat da. Gure eskaintza turistikoa indartuko du eta, batez ere, hezkuntza-tresna paregabea izango da gure gazteentzat, euren sustraiak ezagutu eta maita ditzaten. Gure arbasoek utzi ziguten moduan, guk ere gure ondorengoei utziko diegu ondare berritu hau.

Gozatu dezagun guztion artean berreskuratutako Beasaingo distiraren berri honekin.

Una nueva ventana se abre a nuestras raíces

Siento un gran orgullo al contemplar nuestra parroquia renovada. Como alcaldesa, me emociona ver cómo nuestro pasado ha salido a la luz tras siglos de silencio. Este hallazgo no solo enriquece nuestra historia, sino que refuerza nuestra identidad como pueblo. Agradezco de corazón la colaboración de las instituciones y el impecable trabajo de las restauradoras.

Este patrimonio es una nueva oportunidad para Beasain: potenciará nuestro turismo y será una

herramienta educativa clave para que nuestros jóvenes conozcan y amen sus raíces. Mi sincero agradecimiento a todas las personas que han hecho posible este descubrimiento, al profesor Pedro Luis Echeverría y a todas las restauradoras por su labor tan precisa. Disfrutemos juntos de este legado que entregaremos, renovado, a las próximas generaciones.



Un tesoro renacentista al descubierto

Tras cuatro años de intensos trabajos, Beasain ha recuperado un conjunto artístico único en Gipuzkoa. El hallazgo accidental en 2021 de las pinturas murales de Juan Pérez de Landa (1555) tras el retablo mayor ha culminado con una restauración integral.

Con una inversión total de 1,4 millones de euros financiados entre la Diputación, el Gobierno Vasco, el Ayuntamiento y la Diócesis, el proyecto permite ahora visitar tanto las pinturas como el retablo restaurado, gracias a una innovadora estructura de madera.

Horma-irudi errenazentistak eta erretaula nagusia biziberritu dira

Erakundeen arteko elkarlanari eta lau urteko zaharberritze prozesuari esker, Andre Maria Zeruratuaren parrokia Gipuzkoako ondare erlijiosoaren erreferentziazko gune bihurtu da.

2021eko ekainean, pipiak jotako pieza txiki bat aldarean agertu zenean, inork ez zuen aurreikusten Beasaingo historia artistikoa aldatuko zenik. Gertaera hark erretaula nagusia desmuntatzera behartu zuen eta, prozesu horretan, Juan Perez de Landak 1555ean margotutako horma-irudi errenazentista bikainak azaleratu ziren. Lau faseko lan neketsuaren ondoren, joan den apirilaren 30ean aurkeztu zitzaizen herritarrei eta erakundeei behin betiko emaitza.

Lau urteko ibilbide teknikoa

Lanen kronogramak proiektuaren tamaina erakusten du. 2022an erretaula desmuntatu eta margoen lehen katak egin ziren. Ondorengo bi urteetan (2023-2024), margoen estaldurak kendu eta zaharberritze kromatikoa burutu zen. Azkenik, 2025etik 2026ko martxora bitartean, presbiterioa eraberritu eta erretaula egitura bertikal berri batean muntatu da, hormatik hiru metro-ra, margoak ikusgai utziz.

Balio artistiko paregabea

Aurkitutakoa Gipuzkoako multzo errenazentista handiena da. Perez de Landak Pasioaren eszenak eta irudi mitologikoak (kerubinak, piztiak) islatu zituen. Zaharberritzeak margo hauen kolore biziak

(gorria eta urdina) berreskuratu ditu, baita erretaula barrokoaren distira ere. Gainera, Gipuzkoako Foru Aldundia argitalpen monografiko bat prestatzen ari da Pedro Luis Echeverria eta Laura Calvo historialariek besteak beste, aurkikuntza honen garrantzi historikoa gizarteratzeko.

Inbertsioa eta elkarlana

Proiektuaren aurrekontua 1.415.386 eurokoa izan da. Finantziazioa bost erakunderen artean banatu da: Foru Aldundia (%43), Gotzaindegia (%19), Eusko Jaurlaritza (%17), Udala (%16) eta Parrokia bera (%4). Elkarlan honek erakusten du herri-ondarea

★ Con una inversión de 1,4 millones de euros, el proyecto permite ahora visitar tanto las pinturas como el retablo restaurado

Beasain: XVI. mendeko horma-irudien aberastasunaren eredu eta lekuko bakarra

BEASAINDIK — Andre Maria Z

04

BEASAINDIK

Pedro Luis Echeverría Goñi historialariak aurkikuntza honen eredugarritasuna azpimarratu du; garai batean Gipuzkoako tenplu gehienak janzten zituen jatorrizko estetika berreskuratu baitu.

Pedro Luis Echeverría Goñi, iruindarra jaiotzez, EHU-ko Artearen Historia eta Musika saileko irakaslea da. Bere ikerketa lana funtsezkoa izan da Andre Maria zeruratuaren parrokian ezkutatuta zegoen altxor hau ulertzeko. Errenazimenduko horma-irudietan aditua, Echeverría lan hauen egiletza dokumentatua zuen fisikoki agertu baino hamar-kada batzuk lehenago.

Iragarpena eta aurkikuntza: artxiboaren balioa

Echeverría-ren eta pinturen arteko harremana aurkikuntza baino askoz lehenago hasi zen, inork haiek zeudenaren susmorik ez zuenean. Iruñeko elizbarrutiko artxiboan egindako ikerketei esker, egilea eta gaia identifikatu zituen 1998an, Ondare aldizkarian argitaratuz.

"Historiako lehen kasua izango dela uste dut, non pinturak aurkitu aurretik dena dakigun", nabarmendu du historialariak.

Ziurtasun dokumental horrek bultzatu zituen zaharberritzaileak aldarmioak gangaraino igotzera, erretaula barrokoa konpontzeko desmuntatzen ari zirela Magdalenaren irudia ustekabeen agertu ondoren. Echeverría zehaztasunez gidatu ahal izan zuen prozesua: "Nik neuk, elizan bertan, dena estalita zegoenean... esaten nien: begira, hau eta hura agertu behar da...".

Hiru fasetako kronika piktorikoa

Parrokiako artxiboan, notario-protokoloetan (Tolosa, Oñati) eta Gipuzkoako Artxibo Nagusian

egindako ikerketak agerian utzi du kapera nagusiko dekorazioa hiru etapatan garatu zela XVI. mendearen bigarren erdian:

- Pasioaren Zikloa (1555-1556): Juan Perez de Landaren lana da; neurri itzeleko eszenak ditu, hala nola Erdiko Kalbarioa (osorik), Atxilotzea (osorik) eta Baratzearen Otoitza.
- Erretaula irudikatua (fingitua) (1572tik aurrera): Horman margotutako Andre Mariari eskainitako erretaula, estilo atzerakoiagoa duena; zurezko erretaula iritsi aurretik "komi-ki" bisual gisa balio zuena.
- Frisoa eta kuxindura (1585-1587): Azken fasea, hornei noblezia eman ziena, pintzelaz harrizko apareju dotore bat imitatuaz.



Beasainen eredugarritasuna

Balio artistikotik haratago, multzo honek eredu historiko gisa duen garrantzia azpimarratzen du Echeverriak. XX. mendean zehar, Gipuzkoako tenplu gehienek beren estaldurak kendu zituzten, biluzik eta antzu utziz. "Beasain eredu-garria da guztiak nolakoak ziren erakusteko", dio, eliza guztiak moda orokorraren arabera aldizka eguneratzen eta margotzen zirela gogoraraziz.

Aldundiaren hurrengo argitalpenak, Echeverría eta Laura Calvoren ikerketa historikoekin eta Artez, Petra eta Carmen Martin zaharberritzailearen lanekin, Mikel Landa arkitektoak koordinatutako prozesu hau xehatuko du. Horma-irudiak eta erretaula barrokoa lehen bi zatietan jorratuko dira; azken atalak, Cristina Fernandez ardurapean, berreskuratutako iragan hori belaunaldi berrientzat interaktiboa eta bizia izan dadin kudeaketa-erronkak jorratuko ditu. Garai hartan ohikoa zen ikusgarritasun bikain hori gordetzen duen parrokia bakarra da gaur egun Beasaingoa.



★ Pedro Luis Echeverría Goñi historialaria: "Historiako lehen kasua izango dela uste dut, non pinturak aurkitu aurretik dena dakigun"

Testimonio único de la riqueza mural del siglo XVI

Pedro Luis Echeverría Goñi, historiador de la UPV/EHU, ha sido clave en el rescate de las pinturas de la Parroquia de la Asunción. Gracias a sus investigaciones de 1998, predijo el hallazgo antes de que ocurriera. "Será el primer caso en que se descubren unas pinturas y de antemano se sabe ya todo".

Crónica en tres fases

La decoración se desarrolló en el siglo XVI:

- **Ciclo de la Pasión (1555-56):** Por Juan Pérez de Landa, con escenas colosales como el Calvario y el Prendimiento.
- **Retablo fingido (post-1572):** Pintura mural de Santa María que servía de guía visual antes del retablo de madera.

- **Friso y almohadillado (1585-87):** Acabado que imita piedra para dar nobleza a los muros.

Ejemplaridad de Beasain

Beasain es hoy un modelo frente a la desnudez de otros templos guipuzcoanos. "Beasain resulta ejemplar para demostrar lo que fueron todos", afirma. Una próxima publicación de la Diputación detallará este hito histórico y su restauración.



HIRU FASE

1. Pasioaren Zikloa


(1555-1556)

2. Erretaula irudikatua

(1572tik aurrera)

3. Frisoa eta kuxindura

(1585-1587)



Oria ibaiaren ertzeko natur-bide berria martxan da

Oria ibaiaren ertzetik joango den kilometro bateko ibilbidea eraikitzen hasi da Udala, mugikortasun jasagarria eta aisialdia sustatzeko helburuarekin. Eskualdeko mugikortasuna eraldatzea du helburu, Goierriko bidegorri-sarearen ardatz berri bat sortuz.

Ibilbidea eta ezaugarri teknikoak

Ibilbide berriak kilometro bateko luzera izango du eta Oria ibaiaren eskuinaldeko ertzetik igaroko da. Bernedoeneako osasun-etxean hasi eta Altamira auzoraino iritsiko da, Indar enpresa kokatzen den gunearekin bat eginez. Proiektuaren barruan, elementu azpimarragarriena ibaia zeharkatzeko eraikiko den **42 metroko egur laminatuzko zubi dotorea** izango da.

Ibilbidearen erosotasuna eta segurtasuna bermatzeko, proiektuak honako ezaugarri hauek ditu:

- **Argiztapen osoa:** Bide osoa argiztatuta egongo da segurtasuna bermatzeko.
- **Zoladura mistoa:** Hiriguneko zatian asfalto inprimatua erabiliko da eta landa-eremuan, berriz, lurrezko pista, ingurumenarekin bat egiteko.
- **Lotura estrategikoa:** Beasain, Olaberria eta Idiazabal herriak modu seguruan konektatzeko lehen urratsa izango da.

Landa-lurretako zatian makinak lanean ari dira jada. Aldi berean, hiriguneko zatia —Osasun etxetik Zumadi gunera doana— esleitu da dagoeneko. Lanek, guztira, **sei hilabeteko iraupena** izango dutela aurreikusten da, eta helburua bidea urte amaierarako prest egotea da.

Ekimen honi esker, herritarrek naturaz gozatzeko gune berri bat izango dute, bai aisialdirako, bai lanerako edo eguneroko joan-etorrietarako modu osasuntsu eta jasagarrian.

★ Lanek, guztira, sei hilabeteko iraupena izango dute, bidea urte amaierarako prest utziz

Nueva vía natural junto al Oria

El Ayuntamiento de Beasain avanza en la construcción de un nuevo bidegorri de **un kilómetro** por la margen derecha del río Oria, conectando el centro de salud con el barrio de Altamira (Indar). Este proyecto, contará con un puente de madera laminada de 42 metros de longitud e iluminación en todo su trazado.

Las obras ya han comenzado en el tramo rural y se ha adjudicado el tramo urbano (Bernedoenea-Zumadi). Con un plazo de ejecución de **seis meses**, se espera que esta nueva infraestructura ciclista y peatonal esté operativa para finales de año, facilitando una movilidad sostenible y saludable.

Klima-babeslekuak prest Igartza Oletan eta Errekarten

Udalak landaretza ugariz, atsedenekuz eta itzalaz hornitu ditu hiri-eremu horiek, udako tenperatura altuei aurre egiteko.

Muturreko bero-boladen aurrean herritarren ongizatea hobetzeko helburuarekin, kanpoko bere lehen bi klima-babeslekuak jarri ditu martxan. Ingurumen-erosotasuneko eremu berri hauek Igartza Oleta kalean eta Errekarte kalean kokatuta daude; udalak bi gune horiek erabat egokitu ditu, arintze termikorako gune hauek behar dituzten ezaugarriak bete ditzaten.

Klima-babeslekuak bero-sentsazioa baretzeko, atsedeen hartzeko eta hiri-ingurunean tenperatura altuei hobeto aurre egiteko berariaz diseinutako espazioak dira. Bi kokalekuek landaredia eta zuhaitzi nabarmena dituzte, giro-tenperatura atseginagoa bermatzeko. Altzari berriak jarri dira, hala nola aulkiak, mahaiak eta atsedeen-guneak. Modu honetan, urrats sendoa ematen du Udalak, udalerrria klima-aldaketara egokitzeko bidean, bizilagunei eguzkitik babesteko eta egunerokoan etenaldi bat egiteko ingurune berde, seguru eta freskoak eskainiz.



Listos los refugios climáticos de Igartza Oleta y Errekarte

El Ayuntamiento acondiciona estas zonas con vegetación, sombra y mobiliario para aliviar el calor estival

Con el objetivo de mejorar el bienestar ciudadano frente a las olas de calor, se han habilitado dos refugios climáticos exteriores en Igartza Oleta kalea y Errekarte kalea.

Estos espacios urbanos están diseñados específicamente para mitigar la sensación de calor y ofrecer un lugar de descanso. Para ello, ambas zonas se han adaptado con una abundante vegetación y arbolado que garantiza una temperatura más agradable, además de nuevo mobiliario con bancos y mesas. Con esta iniciativa, el Ayuntamiento avanza en la adaptación al cambio climático, ofreciendo a los vecinos entornos verdes, frescos y seguros donde protegerse del sol.



Beñat Turrientesi eta Aritz Elustondori harrera beroa udaletxean

Loinatz jaien atarian, herriak ezohiko eztanda bizi izan zuen udaletxean. Udalak harrera instituzional bezain sutua egin zien Beñat Turrientes eta Aritz Elustondo Realeko jokalariei, lortutako Errege Kopa dotorea etxera ekartzeagatik. Bi futbolariak festin hasierako danbategiaren parte hartu zuten, eta pozez gainezka zegoen plaza baten aurrean, udaletxeko balkoitik eskaini zieten kopa herrikideei, beasaindarren maitasun eta berotasun handiena jasoz.

Udalak oroigarri berezi bat oparitu zien biei, herri oso baten kemena biltzen duen lelo esanguratsu honekin: "Ez etsi, eutsi, sinetsi eta erdietsi". Ekitaldi gogoangarria bezain hunkigarria, beasaindar izatearen harrotasuna eta festetako gure herriko sena ezin hobeto uztartu zituena.

Homenaje en el Ayuntamiento a los realistas Beñat Turrientes y Aritz Elustondo

En el inicio de las fiestas de Loinatz, el Ayuntamiento ofreció una calurosa recepción a los jugadores beasaindarras de la Real Sociedad, Beñat Turrientes y Aritz Elustondo, tras proclamarse campeones de la Copa del Rey.

Ambos futbolistas participaron en el tradicional *chupinazo* y ofrecieron el trofeo a la ciudadanía desde el balcón consistorial, donde recibieron todo el cariño de las y los beasaindarras. Como reconocimiento, el Ayuntamiento les obsequió un presente con el lema: "Ez etsi, eutsi, sinetsi eta erdietsi" (No desistir, resistir, creer y lograr), en un acto que unió el orgullo local y el espíritu festivo.



GENERO IKUSPEGIDUN IBILBIDE ETA ESPAZIO INKLUSIBOAGOAK EGIN DITZAGUN

Udalak online galdetegi bat jarri du martxan, puntu kritikoak identifikatzeko eta eguneroko mugikortasuna genero-ikuspegitik hobetzeko.

DISEÑEMOS ITINERARIOS Y ESPACIOS MÁS INCLUSIVOS DESDE LA PERSPECTIVA DE GÉNERO

El Ayuntamiento ha puesto en marcha un cuestionario online para identificar puntos críticos y mejorar la movilidad diaria desde una perspectiva de género.

**Mesedez, lagundu iezaguzu
inprimakia betez!**

**¡Ayúdanos completando
el cuestionario!**

